

## Beste Iragarpen Ofizial Batzuk

### HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

IRAGARPENA, M.<sup>a</sup> Eugenia Ocamica Barroeta andrearen izenean emandako pianoko irakaslearen arte-irakaskuntzetako titulu bat galdu dela jakinarazteko dena. 3745

### ARRIGORRIAGAKO UDALA

IRAGARPENA, Arrigorriagako Udal Kiroldegiko, Udal Euskaltegiko eta Udaleko plantila organikoari buruzkoa. 3746

## Pribatuen iragarpenak

### SASTARRAIN S. COOP. LTDA.

IRAGARPENA, Sastarrain S. Coop. Ltda. delakoa Erantzukizun Mugatuko Sozietate bilakatzeko dena. 3748

### BODEGAS MAESE JOAN, S. COOP.

IRAGARPENA, Bodegas Maese Joan, Sociedad Cooperativa, sozietate anonimo bihurtzeari buruzkoa. 3749

## Xedapen Orokorrak

### INDUSTRI, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

#### 1504

174/1995 DEKRETUA, otsailaren 28koa, Valderejoko Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Arautze-ko Plana onartzeko dena.

Valderejoko parke naturala Arabako Lurralde Historikoaren mendebaldeko muturrean dago, eta 3.496 ha-ko azalera hartzen du bere baitan. Valdegoviako udalerriari kokatzen da, eta Valderejo lehengo udalerriko Administrazio Batzaren lurraldeak osatzen du.

Lurralde txiki honek artapenerako interes berezia du, bere barruan dauden balio naturalak direla eta. Ixia despopulaturiko harana da, lau herrigune dituena, Lahotze, Lalastra, Erribera eta Villamardones, azkeneko biak orain dela hogeitau urte baino gehiagotik abandonatuak.

Haran honetako kararizko hormetan Autonomi Elkarteak sai talderik handiena kokatzen da; horrez

## Otros Anuncios Oficiales

### DEPARTAMENTO DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

ANUNCIO por el que se hace público el extravío del Título de Enseñanzas Artísticas, correspondiente a Profesor de Piano, expedido a nombre de Dña. M.<sup>a</sup> Eugenia Ocamica Barroeta. 3745

### AYUNTAMIENTO DE ARRIGORRIAGA

ANUNCIO de la Plantilla orgánica del Ayuntamiento, Arrigorriaga Udalkiroldegia y Euskaltegi Municipal de Arrigorriaga. 3746

## Anuncios Particulares

### SASTARRAIN S. COOP. LTDA.

ANUNCIO de transformación de Sastarrain S. Coop. Ltda. en Sociedad Limitada. 3748

### BODEGAS MAESE JOAN, S. COOP.

ANUNCIO de la transformación de Bodegas Maese Joan, Sociedad Cooperativa en Sociedad Anónima. 3749

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, AGRICULTURA Y PESCA

#### 1504

DECRETO 174/1995, de 28 de febrero, por el que se aprueba el Plan Rector de Uso y Gestión del Parque Natural de Valderejo.

El Parque Natural de Valderejo se sitúa en la zona más occidental del Territorio Histórico de Álava, ocupando una superficie de 3.496 ha. Está situado en el municipio de Valdegoviá y se corresponde con el territorio de la Junta Administrativa de Valderejo, antiguo municipio del mismo nombre.

Este pequeño territorio posee un elevado interés para la conservación debido a los valores naturales que existen en su interior. Se trata de un valle prácticamente despoblado, con cuatro núcleos rurales, Lahoz, Lalastra, Ribera y Villamardones, los dos últimos abandonados desde hace más de dos décadas.

En las paredes calizas del valle se asienta la mayor población de buitres de la Comunidad Autónoma, habi-

gain, interes handiko beste hegazti batzuk bizi dira bertan, hala nola belatxinga moko-horia, belatz handia edo mendi-tuntuna, edota zenbait lepidoptero, Parnassius apollo berbarako. Hartziko horma hauetan, hala-ber, landare-espezie interesgarriak bizi dira.

Basoen artetik aipatzekoak dira pinu gorrien basoak, pagadiak eta artadi edo karraskalak, hala nola erkamezti sail batzuk ere. Haraneko horma harrizkoetan bizi den fauna balio handikoa bada, basoetan bizi denak ere ez du balio gutxiago; horien artetik, aztorea, zapelatz liztorjalea, mendi-erregetxo, mokokerra eta orkatza nabarmentzen dira, besteak beste.

Puron ibaia parke naturalean dagoen ur-korronte garrantzitsu bakarra da, haranaren ardatza alegia. Ibai horretan bizi den faunari buruz, aipatzekoa da ur-zozoak lortzen duen dentsitatea, nahiz eta Euskal Autonomi Elkartearen espezie urria den, ur-korronte aski oxigenatu eta garbiak behar baititu.

Alderik garaiena, Anderejoko mendizerra, txilarren sastrakek estalita dago, non larratzen baitira haraneko eta Araba eta Burgosko zenbait espeziezako etxabereak, larreak denen artean partituz. Alde hori larraketagune tradizionala izan da, bertan dauden monumentu megalitiko, tumulu eta iruinariak erakusten dutenez.

Lurralde honek biltzen dituen natur eta kultur balioengatik parke naturaltzat jo zen urtarrilaren 14ko 4/1992 Dekretuaren bidez, Natur Baliabideen Antolamendurako Plana onetsi ondoren.

4/1992 Dekretuarekin eta Euskal Herriko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legearekin bat, arau horietan zehazten diren izapideak bete ondoren, Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren proposamenez, Jaurlearitza Kontseiluak 1995eko otsailaren 28an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

#### XEDATU DUT:

*Atal bakarra.* - Valderejoko parke naturaleko Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko Plana behin betiko onestea, zein dekretu honen eraskinean argitaratzen baita.

#### AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.* - Valderejoko Parke Naturalaren Kudeaketarako Organo Arduradunak natur inguruaren beharrik aztertu eta Erabilera Publikorako Plana aurkeztuko du, urtebeteko epearen barruan. 16/1990 Legearen 29. atalean ezarritako izapideak bete ondoren, plan hori Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko Planari erantsiko zaio.

*Bigarrena.* - Honako dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamundean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1995eko otsailak 28.

Lehendakaria,

JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburua,  
JAVIER RETEGUI AYASTUY.

tándolas también aves de un gran interés como la chova piquigualda, el halcón peregrino o el acentor alpino, o lepidópteros como Parnassius apollo. Estas paredes rocosas son también habitadas por especies vegetales de notable interés.

En las formaciones boscosas destacan los pinares de pino silvestre, los hayedos y encinares o carrascales, existiendo alguna representación de quejigales. Si valiosa es la fauna que habita las paredes rocosas del valle, no lo es menos la que habita los medios forestales, entre las que destacan el azor, el halcón abejero, el reyezuelo sencillo, el piquituerto y el corzo entre otros.

El río Purón es la única corriente importante de agua que existe en el Parque Natural, actuando como eje del valle. De la fauna que lo habita destaca la densidad que alcanza en este río el mirlo acuático, especie escasa en la Comunidad Autónoma del País Vasco al necesitar de corrientes de agua oxigenadas y limpias.

La zona más alta, la sierra de Anderejo, está cubierta por un matorral de brezos, donde pastan diversas especies de ganado doméstico del Valle y de otras entidades alavesas y burgalesas, compartiendo los pastos. Esta zona ha sido un lugar tradicional de pastoreo, tal como señalan los monumentos megalíticos, túmulos y menhires que en ella se hallan.

Los valores naturales y culturales que encierra este paraje provocaron que fuera declarado Parque Natural mediante Decreto 4/1992, de 14 de enero, previa aprobación de su Plan de Ordenación de los Recursos Naturales.

De conformidad con lo dispuesto en el Decreto 4/1992 y en la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco, y cumplidos los trámites en estas normas prevenidos, a propuesta del Consejero de Industria, Agricultura y Pesca, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno, en su sesión de 28 de febrero de 1995.

#### DISPONGO:

*Artículo único.* - Aprobar definitivamente el Plan Rector de Uso y Gestión del Parque Natural de Valderejo, que se publica como anexo al presente Decreto.

#### DISPOSICIONES FINALES

*Primera.* - El Órgano Responsable de la Gestión del Parque Natural de Valderejo, evaluadas las necesidades del espacio natural, elaborará, en el plazo de un año, un proyecto de Plan de Uso Público, que, previa su tramitación de conformidad con el procedimiento establecido en el artículo 29 de la Ley 16/1990, se integrará en el presente Plan Rector de Uso y Gestión.

*Segunda.* - El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 28 de febrero de 1995.

El Lehendakari,

JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Industria, Agricultura y Pesca,  
JAVIER RETEGUI AYASTUY.

## ERASKINA

VALDEREJOKO PARKE NATURALEKO ERABILERA  
ETA KUDEAKETA ARAUTZEKO PLANA

## AURKIBIDEA

## I. IDAZPURUA

## XEDAPEN OROKORRAK

1. atala. - Izaera.
2. atala. - Helburuak.
3. atala. - Indarraldia eta plana berrikusteko baldintzak.
4. atala. - Aplikazio-eremua.
5. atala. - Egitura.
6. atala. - Dokumentazioa.

## II. IDAZPURUA

## ARAUAK ETA IHARDUKETAK

7. atala. - Plangintza hidrologikoa.
8. atala. - Suteen aurrearreta.
9. atala. - Basoen kudeaketarako jarraipideak.
10. atala. - Faunaren kudeaketa eta babesa.
11. atala. - Ehiza.
12. atala. - Abeltzaintza.
13. atala. - Eraikuntza.
14. atala. - Paisajearen babesa.
15. atala. - Erabilera publikoa.
16. atala. - Ikerkuntza.

## I. IDAZPURUA

## XEDAPEN OROKORRAK

1. atala. - Izaera.

Valderejoko ingurua Parke Natural izendatzen duen urtarrilaren 14ko 4/1992 Dekretuak eta Euskal Herriko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legeak diotena betez onartu da Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko Plan hau.

2. atala. - Helburuak.

Valderejoko parke naturaleko Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko Planak ondoko helburu hauek ditu:

a) Erabilerak eta iharduerak kudeatzeko arauak definitu eta garatzea, Natur Baliabideen Antolamendurako Planaren gidalerroekin bat etorriz.

b) Natur baliabideen mantenimendua eta lehengoratztea, eta babesturiko naturguneari dagozkion helburuak, hala nola naturaren fenomenoaren interpretazioa, ingurugiroari buruzko hezkuntza, naturgunearen usaera eta gozamen erazkoa, edota parke naturalean zein parkearen eraginaren menpeko aldean bizi diren erkidegoen ikerketa eta garapen sozio-ekonomikoa bermatzeko behar diren iharduketak definitzea.

## ANEXO

PLAN RECTOR DE USO Y GESTIÓN DEL PARQUE  
NATURAL DE VALDEREJO

## ÍNDICE

## TITULO I

## DISPOSICIONES GENERALES

- Artículo 1.* - Naturaleza.  
*Artículo 2.* - Objetivos.  
*Artículo 3.* - Vigencia y condicionantes de revisión.

- Artículo 4.* - Ámbito de aplicación.  
*Artículo 5.* - Estructura.  
*Artículo 6.* - Documentación.

## TITULO II

## NORMAS Y ACTUACIONES

- Artículo 7.* - Planificación hidrológica.  
*Artículo 8.* - Prevención de incendios.  
*Artículo 9.* - Pautas de gestión forestal.  
*Artículo 10.* - Gestión y protección de la fauna.  
*Artículo 11.* - Actividad cinagética.  
*Artículo 12.* - Actividad ganadera.  
*Artículo 13.* - Edificación.  
*Artículo 14.* - Protección del paisaje.  
*Artículo 15.* - Uso público.  
*Artículo 16.* - Investigación.

## TITULO I

## DISPOSICIONES GENERALES.

- Artículo 1.* - Naturaleza.

El presente Plan Rector de Uso y Gestión se aprueba de conformidad con lo prevenido en el Decreto 4/1992, de 14 de enero por el que se declara Parque Natural el área de Valderejo y en la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco.

- Artículo 2.* - Objetivos.

El Plan Rector de Uso y Gestión de Valderejo del Parque Natural de Valderejo persigue los siguientes objetivos:

a) Definir y desarrollar las normas de gestión de los usos y actividades de conformidad con las directrices del Plan de Ordenación de los Recursos Naturales.

b) Definir las actuaciones precisas a fin de asegurar el mantenimiento y la restauración de los recursos naturales, así como el cumplimiento de las finalidades propias del espacio natural protegido, tales como la interpretación del fenómeno de la naturaleza, la educación ambiental, el uso y disfrute ordenado del espacio natural, la investigación y el desarrollo socio-económico de las comunidades que viven en el Parque Natural o en su entorno de influencia.

c) Baliabide mota bakoitza babesteko arau zehatzak definitzea.

d) Parke naturalaren eta inguruaren artean harremanetarako marko harmoniatsua errazten duten neurriak suspertzea.

3. atala. – Indarraldia eta plana berrikusteko baldintzak.

Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko Plan honek lau urteko indarraldia izango du gehienez, baina planaren idazketa gidatu duten oinarrizko irizpideak aldatzen badira, edo proposaturiko arau zein iharduketek planteatu diren helburuak betetzen ez badituzte, plana berrikusi ahal izango da lau urteko epe hori igaro baino lehen.

4. atala. – Aplikazio-eremua.

Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko Plan honen aplikazio-eremua Valderejoko parke naturala izango da, 4/1992 Dekretuaren 3. atalean ezarritako mugaketaren arabera.

5. atala. – Egitura.

Valderejoko parke naturaleko Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko Planaren zehaztapenak, natur baliabideen babesaren ikuspegitik garrantzia duten sektoreen eremuetan, honela sailkatzen dira:

a) Natur baliabideak babestu eta artatzeko arauak, aplikazio orokorrekoak eta nahitaez betetzekoak direnak.

b) Iharduketak, parke naturalaren kudeaketarako organo arduradunak garatu behar dituen neurrien multzoak osaturikoak; iharduketa horiek honela sailkatzen dira:

– Presazkoak: Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko Plana onetsi eta urtebeteko epean gauzatu behar diren neurriak.

– Beharrezkoak: Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko Planaren indarraldian zehar gauzatu behar diren neurriak.

– Baldintzapekoak: behar adinako pisua duten kausak agertzen direnean gauzatu behar diren neurriak.

– Komenigarriak: aholkaturiko neurriak, aurrekoen osagarriak direnak, zeinen burutzapena baliakizun materialen eta aurrekontu-baliakizunen menpean egongo baita.

c) Natur baliabideen kudeaketa gidatzen duten jarraipideak.

6. atala. – Dokumentazioa.

Valderejoko parke naturaleko Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko Plana ondoko agiri hauek osatzen dute:

a) Sektorekako memoriak.

b) Arauteria.

c) Mapak:

– Antolamendua.

– Landaretza.

– Plangintza hidrologikoa.

– Suteen aurrearreta.

c) Definir la normativa específica de protección para cada tipo de recurso.

d) Fomentar medidas que faciliten un marco armónico de relaciones entre el Parque Natural y su entorno.

Artículo 3. – Vigencia y condicionantes de revisión.

El presente Plan Rector de Uso y Gestión tendrá una vigencia máxima de cuatro años, pudiendo ser revisado antes de esta fecha si los criterios básicos que han guiado la redacción de este plan variaran, o si las normas y/o actuaciones propuestas no satisficieran los objetivos planteados.

Artículo 4. – Ámbito de aplicación.

El presente Plan Rector de Uso y Gestión tendrá como ámbito de aplicación el Parque Natural de Valderejo, de conformidad con la delimitación establecida en el artículo 3 del Decreto 4/1992.

Artículo 5. – Estructura.

Las determinaciones del Plan Rector de Uso y Gestión del Parque Natural de Valderejo, en los ámbitos sectoriales con relevancia desde el punto de vista de la protección de los recursos naturales, se dividen en:

a) Normas para la protección y conservación de los recursos naturales, de aplicación general y obligado cumplimiento.

b) Actuaciones, integradas por un conjunto de medidas a desarrollar por el Órgano Responsable de la Gestión del Parque Natural y que, a su vez, se clasifican en:

– Urgentes: Medidas a realizar en el plazo de un año a contar desde la aprobación del Plan Rector de Uso y Gestión.

– Necesarias: Medidas a realizar durante la vigencia del Plan Rector de Uso y Gestión.

– Condicionadas: Medidas a realizar cuando aparezca en el tiempo la causa que las motive.

– Convenientes: Medidas aconsejadas y complementarias de las anteriores, cuya realización dependerá de las disponibilidades materiales y presupuestarias.

c) Pautas orientadoras de la gestión de los recursos naturales.

Artículo 6. – Documentación.

El Plan Rector de Uso y Gestión del Parque Natural de Valderejo está integrado por la siguiente documentación:

a) Memorias sectoriales.

b) Normativa.

c) Mapas:

– Ordenación.

– Vegetación.

– Planificación hidrológica.

– Prevención de incendios.

- Hariteria elektrikoak, palaxuen erakuntzak eta urguneak.
- Faunarentzako inguru bereziak.
- Ehizaldiak
- Abeltzaintzako azpiegiturak.

## II. IDAZPURUA.

### ARAUAK, IHARDUKETAK ETA KUDEAKETARAKO JARRAIPIDEAK.

#### 7. atala. - Plangintza hidrologikoa.

##### A.- Arauak.

1.- Debekaturik dago dolinak dauden aldeetako landareak ebaki edo erretzea, baita inguru horietara abereak biltzea ere.

2.- Debekaturik dago abereak Calleja del Avellanaleko ibaiaren ubidera sartzea.

3.- Debekaturik dago ibilgailuak Calleja del Avellanaleko ibaiaren ubidearen inguruetara hurbiltzea.

##### B.- Iharduketak.

##### 1.- Presazko neurriak.

1.1.- Carrascosako hegoaldeko mendi-hegala lehen goratzea, baita Lahozen gainean kokaturiko mendi-hegalak ere, higadura maila altua jasaten baitute. Iharduketak bi norabide hauetara zuzendu behar dira:

a) Alde horiek erabiltzen dituzten abere-taldeak abeltzaintza-aprobetxamendurako planean proposaturiko beste alde batzuetara aldatzea.

b) Degradaturiko alde horietako landaretza lehen goratzea.

1.2.- Juncal izeneko aldean kokaturiko urmaela atondu eta lehengora ekartzea.

##### 2.- Beharrezko neurriak.

2.1.- Interesekoak diren ur-puntuen artapena. Ura euriaren bidez bakarrik jasotzen duten puntuetan, urmaeletako hormen lehorketa eta kolmatazioa ekiditeko lanak egin behar dira; putzu eta iturburuei dago kienez, ordea, nahikoa izango da aldian-aldian garbitzea.

2.2.- Anderejo aldeko dolina nagusien babesa. Horretarako, abereak hara bil daitezten eragotziko da, eta kartelak jarriko dira urak kutsatzeko arriskuaz ohartzeko, hondakinik bota ez dadin batez ere.

2.3.- Ibilgailuak Calleja del Avellanaleko ibaiaren ubidearen inguruetara hurbil daitezten eragotzi behar dira, jendea egun dauden seinaleak errespetatzera behar-tuz.

2.4.- Juncal aldean kokaturiko urmaela artatu eta agian zabaltzea.

2.5.- Puron ibaiaren hegietan botatako zaborrak aldian-aldian biltzea.

##### 3.- Baldintzapeko neurriak.

3.1.- Urak arazteko egungo sistemak ugaltzea, baldin eta hurrengo urteetan, saneamendu-sarearen emariak edo ukuiluratutako abere kopurua handitzearen

- Tendidos, formaciones de setos y puntos de agua.

- Áreas sensibles para la fauna.

- Batidas.

- Infraestructuras ganaderas.

## TITULO II

### NORMAS, ACTUACIONES Y PAUTAS DE GESTIÓN

#### Artículo 7.- Planificación hidrológica.

##### A.- Normas.

1.- Queda prohibido cortar o quemar la vegetación que crece en las zonas de dolinas, así como la concentración en las mismas de ganado.

2.- Queda prohibida la entrada de ganado al cauce del río de la Calleja del Avellanal.

3.- Queda prohibido el acceso de vehículos a las cercanías del cauce del río de la Calleja del Avellanal.

##### B.- Actuaciones.

##### 1.- Medidas urgentes.

1.1.- Recuperación de la ladera oeste de la Carrascosa, así como, las laderas situadas sobre Lahoz, sometidas a un fuerte grado de erosión. Las actuaciones deben ir en dos direcciones:

a) Traslado de los rebaños que suelen utilizar estas zonas a otras propuestas en el plan de aprovechamiento ganadero.

b) Recuperación de la vegetación de estas zonas degradadas.

1.2.- Acondicionamiento y restauración de la charca situada en la zona del Juncal.

##### 2.- Medidas necesarias.

2.1.- Conservación de los puntos de agua de interés. En los puntos cuyo único aporte de agua sea la lluvia serán necesarias labores destinadas a impedir la desecación y colmatación del vaso de la charca, mientras que en los pozos y manantiales bastará con limpiezas periódicas.

2.2.- Protección de las principales dolinas de la zona de Anderejo. A tal efecto se impedirá la concentración del ganado y se instalarán letreros advirtiendo del riesgo de contaminación de las aguas, principalmente con el fin de evitar el abandono de residuos.

2.3.- Se deberá evitar el acceso de vehículos a las cercanías del cauce del río de la Calleja del Avellanal, obligando a respetar las señales actualmente existentes.

2.4.- Conservación y posible ampliación de la charca situada en la zona del Juncal.

2.5.- Limpieza periódica de las basuras depositadas en las márgenes del río Purón.

##### 3.- Medidas condicionadas.

3.1.- Ampliación de los actuales sistemas depuradores de aguas, si en los próximos años tiene lugar un empleo más intensivo de los mismos como consecuencia

ondorioz, era intentsiboan erabiltzen badira.

#### 4.- Neurri komenigarriak.

4.1.- Sare publikorako ur-ateratzeak ugaritzeko aukera. Hurrengo 4-5 urteetan, ur-eskariak aurrakusten diren kopuruak gaudituko balitu, ur-harpen handiagoen beharra aztertu beharko litzateke. Kasu horretan, ondoko aukera hauek hartuko lirateke aintzat:

a) Oraingo urandelaren edukiera handitzea, egungo 24 m.<sup>3</sup>-etatik, 50-100 m.<sup>3</sup>-tara igaroz, berbarako. Kasu horretan, kontua ez litzateke ur-harpen gehiago egitea, egungoen biltegitratze-ahalmena handiagotzea baizik.

b) Lahotzen ondoko zundaketan lurrazpiko ur-hartu-nea egitea.

4.2.- Erriberako iturburuan iturri bat eta lurpeko urandel bat eraikitzea.

4.3.- Erriberan zaborretarako edukiontzi iraunkorra ezartzea, aldian-aldian hustuko dena eta alde honetan sortutako zarramarrak biltzeko erabiliko dena.

4.4.- Puron ibaiaren puntu batzuetan zaborretarako edukiontziak jartzea.

#### 8. atala.- Suteen aurrearreta.

##### A.- Arauak.

1.- Debekatuta dago Lalastrarako errepide osoan zehar ibilgailuak gelditzea.

##### B.- Iharduketak.

##### 1.- Presazko neurriak.

1.1.- Lalastrara iristeko errepidearen inguruko lurzerrenda osagarria irekitzea. Zerrenda horretan, zarramarrak aldian-aldian bildu beharko dira, behe-inausketan egin beharko zaie errepidetik hurren dauden zuhaitzei, sastrakadi trinkoan etenak egingo dira, batez ere areketan, eta zuhaitz lehorren kopuru jakin bat ezabatuko da.

##### 2.- Beharrezko neurriak.

2.1.- Pinudietan aurrearretazko silbikultura egitea. Valderejoko baso ekoizkorren (pinudiak) kudeaketan beharrezkoa izango da aldi berean irizpide ezberdinei jarraitzea: zuraren ekoizpen erazkoa alderik onenetan, paisajea eta basa-bizitza babestea eta suteen aurkako aurrearretazko silbikultura burutzea.

2.2.- Gai errekorren zati bat ezabatzea, batez ere pinudi gazte batzuetan.

2.3.- Valderejoko pista nagusiak behar bezala mantentzea, suteetarako arriskurik handiena duten aldeetara ibilgailuak sartu ahal izateko bide posibleak baitira. Pista horiek mantentzeko, nahikoa izan daiteke lantzean behin erabiltzea; arazo gehiago sor daitezkeenetan, drenatzeko sistemak ezarri beharko dira putzuak egin daitezkeen aldeetan, eta hegiak garbitu beharko dira (zuhaitzen erorketa, gai errekorren gehiegizko metaketa eta abar).

##### 2.4.- Juncal, Hoyo de la Vieja eta Santa Ana men-

del aumento de los caudales de la red de saneamiento o de la cabaña ganadera estabulada.

#### 4.- Medidas convenientes.

4.1.- Posibilidad de ampliación de las extracciones de agua con destino a la red pública. Si la demanda de agua excediera los valores previstos en los próximos 4-5 años se debería contemplar la necesidad de acometer mayores captaciones. En ese caso, se consideran las siguientes alternativas:

a) Ampliación de la capacidad del depósito actual, pasando de los actuales 24 m.<sup>3</sup> a, por ejemplo, 50-100 m.<sup>3</sup>. En este caso no se buscarían nuevas captaciones, sino una mayor capacidad de almacenamiento de las actuales.

b) Creación de una toma de agua subterránea en el sondeo próximo a Lahoz.

4.2.- Construcción de una fuente y un depósito enterrado en el manantial de Ribera.

4.3.- Instalación permanente de un contenedor de basura en Ribera, de recogida periódica y destinado a los desperdicios generados en esta zona.

4.4.- Instalación de contenedores de basura en algunos puntos del río Purón.

#### Artículo 8.- Prevención de incendios.

##### A.- Normas

1.- Prohibición de detener los vehículos a lo largo de la carretera a Lalastra.

##### B.- Actuaciones

##### 1.- Medidas Urgentes.

1.1.- Apertura de una faja auxiliar bordeando la carretera de acceso a Lalastra. En dicha faja, que periódicamente se deberá limpiar de desperdicios, se deberá proceder a la realización de una poda baja en los árboles más próximos a la carretera, así como a la rotura de la continuidad del matorral denso, principalmente en las cunetas y a la eliminación de un cierto número de árboles secos.

##### 2.- Medidas necesarias.

2.1.- Realización de una selvicultura preventiva en los pinares. En la gestión de los montes productivos (pinares) de Valderejo será preciso seguir conjuntamente diversos criterios: producción ordenada de madera en las mejores zonas, protección del paisaje y de la vida silvestre y seguimiento de una selvicultura preventiva contra incendios.

2.2.- Eliminación parcial de material combustible, principalmente en ciertas masas jóvenes de pinar.

2.3.- Correcto mantenimiento de las principales pistas de Valderejo. Se trata de posibles vías de acceso de vehículos al interior de las zonas de mayor peligro de incendios. El mantenimiento de estas pistas se puede conseguir con su simple uso periódico, mientras que en los casos más problemáticos habrá que acudir a la instalación de drenes en zonas encharcables, o a la limpieza de los márgenes (caída de árboles, acumulación excesiva de material inflamable, etc.).

##### 2.4.- Mantenimiento y mejora de las actuales pistas

diaren aldeetara iristeko egungo pistak mantendu eta hobetzea, alde horiek sute baten kasuan erraz suntsi baitaitezke.

2.5.- Sapolda karstikora iristeko bideak mantentzea, batez ere Erriberatik eta Lahotzetik igotzen diren pistak.

2.6.- Erretzeko arriskurik handiena dagoen aldeetan kokaturiko urmaelak artatzea eta agian zabaltzea. Lan horien helburua urmaelak ez lehortzea izango da: urmaeletako hormen kolmatazioa hondoa garbituz eragotz liteke, eta iragaztearen ondorioz gertatzen diren ur-galerak, hondoa iragazkaituz.

2.7.- Ur-hartune bat egitea hegoaldean eta zintzurretik hurbil; nahikoa izan liteke ibaira iristeko bidea egitea eta motoponpa jartzeko leku txikia atontzea.

3.- Baldintzapeko neurriak.

3.1.- Suterik izanez gero, ekintza arin eta eraginkorra. Sua itzaltzera datozen lehenengo ibilgailuei iristeko modua erraztu behar zaie.

3.2.- Valderejoko parke naturalean edo inguruetan sumatzen diren suteei lehenetsua ematea. Horrek ez du esan nahi Araban aldi berean izan daitezkeen gainerrako suteak babesik gabe utziko direnik.

4.- Neurri komenigarriak.

4.1.- Honako atal honen A.1. araua gorde dadin zaintzea, istripuak ekiditeko eta baimenduta ez dauden aldeetara sartzea eragozteko xedeaz.

4.2.- Parke naturaleko eta egin diren ibilbideetako sarreretan suteen arriskuaz ohartzeko seinaleak jartzea.

4.3.- Suteetarako arrisku handia dagoen egunetan, Portillo de la Sierran kokaturiko errepikagailua behatoki gisa erabiltzea.

4.4.- Erriberako iturriaren inguruetan lurpeko urandela eraikitzea.

9. atala.- Basoen kudeaketa.

I.- Erreserba integrala.

A.- Arauak.

1.- Inguruaren ezaugarriek aholkatzen dute basoetan inolako iharduketarik obra ez dadin.

B.- Iharduketak.

1.- Presazko neurriak.

Aparteko kasuetan (suteak, izurri adierazpena), ondoko neurri hauek har litezke: suebakiak egitea, kalteturiko oinak ebakitzea eta abar.

II.- Mendi babeslea eta mendi babesleko erreserba integrala.

A.- Iharduketak.

Ez da beharrezkotzat jotzen hurrengo urteetan zehar inolako iharduketarik burutzea alde hauetan, pisten mantenimendua edo suteetarako arriskua gutxitzeko unean uneko iharduketak salbuetsita: bakanketak eta

de acceso a las zonas del monte Santa Ana, el Juncal y el Hoyo de la Vieja, muy vulnerables ante un incendio.

2.5.- Mantenimiento de accesos a la meseta kárstica, principalmente la pista que sube desde Ribera y la que asciende desde Lahoz.

2.6.- Conservación y posible ampliación de las charcas situadas en zonas de mayor peligro de incendio. Estas labores deberán ir destinadas a impedir su desecación. La colmatación del vaso de la charca podría solucionarse con una limpieza de su fondo y las pérdidas de agua por infiltración podrían evitarse con una impermeabilización de su fondo.

2.7.- Creación de un punto de toma de agua situado al sur y próximo al desfiladero, como podría ser la realización de un acceso al río y la simple habilitación de una pequeña superficie para que pudiera estacionar la motobomba.

3.- Medidas condicionadas.

3.1.- Actuación rápida y efectiva en caso de producirse un fuego. Se debe facilitar el acceso de los primeros vehículos que acudan a sofocarlo.

3.2.- Dar prioridad en la extinción a los incendios que se declaren en el Parque Natural de Valderejo o sus inmediaciones. Ello no debe significar que se dejen desprotegidos otros posibles incendios simultáneos que sucedan en Álava.

4.- Medidas convenientes.

4.1.- Vigilar el cumplimiento de la norma A.1 del presente artículo, con el fin de evitar accidentes y de impedir su acceso a zonas no autorizadas.

4.2.- Instalación de señales advirtiendo sobre el peligro de incendio en la entrada al Parque Natural y de los itinerarios creados.

4.3.- Utilización del repetidor situado en el Portillo de la Sierra como observatorio en los días de máximo peligro.

4.4.- Construcción de un depósito enterrado en las inmediaciones de la fuente de Ribera.

Artículo 9.- Gestión forestal.

I.- Reserva Integral.

A.- Normas

1.- Las características de la zona desaconsejan la realización de cualquier tipo de actuación en sus masas.

B.- Actuaciones

1.- Medidas urgentes

En casos excepcionales (incendios, declaración de plaga), se podría contemplar la adopción de las siguientes medidas: creación de áreas cortafuegos, derribo de pies afectados, etc.

II.- Monte Protector y Reserva Integral en Monte Protector.

A.- Actuaciones

No se estima necesario acometer actuaciones en estas zonas a lo largo de los próximos años, a excepción del mantenimiento de sus pistas o de actuaciones puntuales destinadas a disminuir el riesgo de incendios: claros y

behe-inausketak pinudi gazteetan, edo sastraken esku-garbiketarako erretzeko arrisku handia duen landareta edo pinudia dagoen aldeetan.

### III.- Baso-ekoizpenerako aldea.

#### A.- Arauak.

Mendi honen egungo egoerak eta Polledo mendiko pinudien ekoizpen-baldintza onek, etorkizunean ebaketei eusteko aukera ematen dute muga batzuen barruan (mendiaren urteko kuota). Mendi honetan ebaketak honako era honetara egingo dira:

1.- Erabiliko den tratamendua bakankako meazketa-rena izango da, edota jarraikako bakanketarena zerrenda bertikaletan. Ebaki beharreko azalerak edo zerrendak, oro har, 5 ha-tik 10era bitartekoak izango dira. 10 urtean leku berean ebaketa ez errepikatzeke ahaleginak egingo dira.

2.- Natur Baliabideak Antolatzeko Planaren arabera, bide nagusien ertz bietatik 50 metrotaraino dauden arboladiei baso garai irregularraren trataera emango zaie eta bertan bakankako meazketak egingo dira. Gerora ere, hostozabalen ustiatetari ekiten bazaio, sistema hau gomendatzen da.

3.- Hostozabalen oinak, oro har, errespetatu egingo dira, eta ebaki pinu gorrietarik ebakiko da. Bota beharreko zuhaitzen aukeraketa adaburuaren eitean, osasun egoeran edo etorkizun hobea duten beste oin batzuekiko (berez sorturiko zuhaitzak, hostozabalak) hurbiltasunean oinarrituko da. Ebakitzeko, beraz, nahiz zur bilaka daitezkeen pinu helduak nahiz kokalekuarengatik beste zuhaitz batzuen hazkunderako oztopo diren oin gazteak aukeratuko dira.

4.- Edonola ere, leku jakin batzuetan hostozabal batzuk ebaki ahal izango dira berezko birsorkuntza laguntzeko edo gaitzak (suteak, izurriak eta abar) zuhaitz batetik bestera igaro daitezkeen eragozteko.

5.- Parke naturaleko Administrazioak ebaketa jakinen bat eten ahal izango du, inguruabarren batek -biologi izaerakoa, berria zein aurrikusi gabekoa- horrela gomendatzen badu.

6.- Basoetan behar-beharrezkoak diren tratamendu fitosanitarioek parkearen kudeaketaz arduratuko den organoaren berariazko baimena jaso beharko dute. Organo horrek, aski bidezkoetako arrazoiak daudenean bakarrik emango du baimena, eta kalte ekologikoak ekiditeko baldintza murriztaileak ezarriko ditu.

7.- Basa-faunari babesa eta elikagaiak emateko xedeaz, lehortuta edo hiltzear dauden zuhaitz batzuk, kopuru aldagarrian, zutik edo lurrean (erispina kausa naturalen ondorioa bada) utziko dira. Arau orokor gisa, oin horien kopuruak ez du gaindituko aldean aldeko zuhaitz guztien %10-20a, eta ahaleginak egingo dira basoan sakabanaturik egon daitezkeen. Kasu batzuetan (errekaguneetan, animalia dentsitate handiagoa dagoen aldeetan) errespetatu beharreko oinen kopurua handiago izan daiteke.

8.- Ebaketak neguan egingo dira, eta oro har ez da urtean 500 m.<sup>3</sup> baino gehiago atera behar.

podas bajas en los pinares jóvenes o rozas manuales no muy extensas del matorral en zonas de pinar o de vegetación con gran riesgo de incendio.

### III.- Zona Forestal de Producción.

#### A.- Normas

El actual estado forestal de este monte y las buenas condiciones productivas de los pinares de monte Polledo, permiten la continuación futura de las cortas dentro de ciertos límites (posibilidad del monte). Las cortas en este monte se realizarán de conformidad con las siguientes normas:

1.- El tratamiento a seguir será el de cortas de entresaca por huroneo o el de aclareo sucesivo por fajas verticales. Las superficies de corta o fajas comprenderán en general entre 5 y 10 ha. Se deberá tratar de no repetir las cortas en el mismo lugar sin dejar trascurrir al menos 10 años.

2.- Como indica el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales, en una franja de unos 50 m a ambos lados de las carreteras principales la masa arbolada se someterá a un tratamiento de monte alto irregular de cortas por huroneo. Este mismo tratamiento podría ser el aconsejable en las masas de frondosa que entren en explotación en el futuro.

3.- En general se respetarán los pies de frondosas, afectando las cortas al pino silvestre. La selección de los árboles a derribar se basará en la forma de su copa, estado de salud o proximidad a otros pies con mayor porvenir (regenerado natural, frondosas). Las cortas, por tanto, afectarán tanto a pinos adultos maderables como a pies menores cuya ubicación perjudica al crecimiento de otros árboles.

4.- En todo caso, se podrán realizar cortas de frondosas en lugares concretos con el fin de favorecer la regeneración natural o de evitar la transmisión de daños en los árboles (incendios, plagas, etc.).

5.- La Administración del Parque Natural podrá suspender una corta concreta si alguna circunstancia de índole biológico, novedosa o no prevista, así lo aconsejara.

6.- Los tratamientos fitosanitarios que fuese imprescindible realizar en las masas arboladas, contarán con la autorización expresa del Órgano Responsable de la Gestión, que sólo la concederá si existen causas suficientemente motivadas, y fijará las condiciones restrictivas para evitar daños ecológicos.

7.- Con el fin de proporcionar refugio y alimento a la fauna silvestre, se dejarán en pie o en el suelo (si su derribo se ha debido a causas naturales) un número variable de árboles secos o moribundos. Como norma general, se indica que estos pies no deberán sobrepasar un 10-20% del total de árboles en cada zona, intentando que se encuentren situados de forma dispersa por el monte. En casos puntuales (vaguadas, zonas de mayor densidad faunística) podrá ser mayor el número de pies a respetar.

8.- Las cortas se realizarán en época invernal, no debiéndose superar en general la extracción anual de 500 m.<sup>3</sup>.



9.- Ebakitako zura ateratzeko eragiketak ingurua errespetatuaz egingo dira, faunari, ibaibideei eta pistei eragindako kalteak ahalik eta txikienak izan daitezen. Ebaketen hondarrak erraz iristeko moduko lekuetan metatuko dira, Valderejoko biztanleek egur gisa erabiltzeko aukera izan dezaten.

10.- Ez da beharrezkotzat jotzen mendi honetan birbasoketarik egitea, baina kudeaketarako organo arduradunak ebaki berri dauden aldeetan larratzea debekatu ahal izango du 5 urte edo gehiagorako.

11.- Mendi ekoizlearen aldean egiten diren ebaketen hondarren aprobetxamenduan kontzentratu beharko da egur-bilketa. Hori nahikoa ez bada, edo bestelako inguruabarrik suertatzen bada (haize edo elurraren ondoriozko eraspenak, suteen aurrearretarako iharduketak eta abar), kudeaketarako organo arduradunak baimena eman ahal izango du beste egur-gai batzuk bil daitezen.

#### B.- Jarraipideak.

Lur-faltagatik edo egun oso gazteak izateagatik zura ekoizteko egokiak ez diren basoetan (Juncal aldeko pinudiak edo sapalda karstikoaren bularretan kokaturikoak), ez dirudi gomendagarria denik hurrengo urteetan ebaketarik egitea.

V.- Nekazaritza eta abeltzaintzarako aldea eta landa-herriguneak.

#### A.- Iharduketak.

##### 1.- Beharrezko neurriak.

